



*Prensa oharra*

2.400 familiarentzako elikagaiak urtebetez

## **EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 6,5 MILIOI OTORDU BANATU DITUZTE FESBAL ETA 54 ELIKAGAI BANKU ELKARTUEN ALDE**

- **3,3 milioi euro eman zaizkio 2020an dohaintzan Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioari elkartasun kanpainei eta *Elkartasun Zentimoei* esker**
- **Elikagaien Bankuak izan dira *Elkartasun Zentimoen* programako lehen kausa, eta EROSKIk 650.000 euro bildu ditu**
- **EROSKIk, gainera, 3 milioi euroren elikagaiak eman dizkio dohaintzat zenbait gizarte erakunderi *Zero Hondakin* programaren bitartez**

Elorrio, 2020ko urtarrilaren 15a.- [EROSKI](#)k eta [haren bezeroek](#) gainditu dute 2020an 5 milioi otordu adina biltzeko helburua, eta, azkenerako, 6,5 milioi otordu izan dira. Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak hartu ditu dohaintzat, eta guztia ere iazko kanpainei esker eta azaroan martxan jarritako *Elkartasun Zentimoen* programari esker izan da. EROSKIk eta haren bezeroek 3,3 milioi euro eman dituzte guztira, eta, hala, urtebetez 2.400 familiak janaria izatea lortu dute.

2020ko kanpainetan bildu dena lekuan lekuko Elikagaien Bankuen eskuetan da, osasun larrialdian zaugarri gelditu diren familiei elikagaiak eta lehen mailako produktuak banatu diezazkieten.

*"Gure erakundearen printzipioek markatzen duten bezala elkartasuna erakustez gain, EROSKIn ulertu dugu gure bezeroen elkartasuna bideratu behar genuela. Haien erantzuna izugarria izan da, bai udaberriko kanpainan eta bai Bilketa Handian eta Elkartasun Zentimoen programan. Gainera, EROSKIk %7 gehitu dio gure bezeroek emandakoari. Hala, Elikagaien Bankuei eta beste gizarte erakunde batzuei milioika euroren otorduak eman dizkie Zero Hondakin programaren bitartez",* esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKIk Elikagaien Bankuei laguntzeko parte hartu duen kanpainetako batek *Milioi bat Otordu* du izena, eta udaberriari jarri zen martxan; hari esker, 750.000 kilo janari baino gehiago bildu eta eman ditu, eta bestean, azaroko *Elikagaien Bilketa Handian* 1,9 milioi euro eman zizkion Elikagaien Bankuei.

*"Eskerrak ematen dizkiogu beste behin EROSKIri ekarpen garrantzitsu honengatik hain zaila izan den urte honetan. EROSKIri eta haren bezeroei esker, aukera izan dugu gero banatuko ditugun elikagai produktuak erosteko, zeinak gurekin diharduten ongintzako entitateen bitartez banatuko baititugu gehien behar dutenen*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



artean", esan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioko zuzendari nagusiak, Miguel Fernandez jaunak.

### **Elkartasun Zentimoak: lehen kausa**

675.000 euro baino gehiago bildu dira Elkartasun Zentimoak programaren lehen kausaren bitartez, EROSKI urtearen azken aldera martxan jarria. Programaren bidez, EROSKIko bezeroek dohaintza txiki bat egin diezaiokete ongintzazko kausa jakin bati erosketak txartelarekin edo sakelakoarekin egiteko orduan. Dohaintza, betiere borondatezkoa eta isilpekoa, kopuru finko bat da tiketeko zenbatekoaren arabera aldatzen dena. 5-30 euroko erosketetarako, 10 zentimo izango dira, eta 30 eurotik gorakoetarako, 20 zentimo. Lehen kausa amaitu da, eta balorazioa oso ona da.

*"Pozik gaude programa honek izan duen erantzunarekin. Espero dugu gure bezeroentzat bide erakusgarri izango dela. Gainera, dagoeneko martxan dugu bigarren kausa. Gure bezeroek berek hautaturiko ekimenak dira, eta zenbait entitate inplikatzeko dituzte, haurren alde dihardutenen hasi eta minbiziaren aurka edo ingurumena zaintzearen alde dihardutenen araino",* esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Orain egun batzuk martxan jarri genuen bigarren kausa soziala: EROSKI [UNICEFi](#), [Mugarik Gabeko Medikuei](#) eta [ACNURi](#) lagunduko die garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzeko kanpainetan.

### **Elkartasuna: EROSKIren eta haren bezeroen ardatza**

Pandemia honek agerian utzi du alternatiba seguruak eta eraginkorrek eskaintzeko beharra EROSKIren bezeroen elkartasuna bideratzeko orduan.

Bonuen sistema, esaterako, elikagaien Bilketa Handiaren azken kanpaina egiteko erabili da, zeina EROSKI garatu baitu FESBALekin eta haren 54 Elikagaien Bankuekin batera, bezeroei dohaintzak egitea errazteko, bankuei konplexutasun logistikoak arintzeko eta lehen mailako produktuak beti eskura dituztela bermatzeko.

Bezeroen elkartasun ekarpenez gain, EROSKI bereak egiten dizkie hainbat gizarte erakunderi, lankidetzaz hitzarmenei esker; hala, %7 gehitu dizkie elikagaiak biltzeko kanpainetan eta *Zero Hondakin* programaren bitartez bezeroek emandakoari; hortaz, 3,1 milioi euroren produktuak eman ditu dohaintzan 2020an, giza kontsumorako egokiak direnak eta bere dendetan saltzen ez direnak.

### **Hogei urtetik gora Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioari eta haren 54 Elikagai Banku elkartuei laguntzen.**

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek berek proposatuta, behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakustea galdegiten

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



zuten eta. Hala, urte horretan bertan hasi ziren Kilo Operazioa eta Elikagaien Bilketa Handia izeneko kanpainak, EROSKIko dendetan.

EROSKIk egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)